

KRITIKA ANTZERKIA

Agus Perez

Bitxikeriak

'Urak dakarrena... glu-glu, glu-glu'

Egilea: Luis Fernandez. **Egokitzapena:** Kepa Gallego. **Itzulpena:** Ritxi Lizartza. **Zuzendaria:** Joxean Bengoetxea. **Eszenografia eta jantziak:** Esther Uria. **Antzezlea:** Esther Uria. **Lekua:** Basauriko Social antzokia. **Data:** Apirilak 17.

Telebistako hainbat telesailetan eta antzerkian besteak beste Maskaradaren *Ernesto izatearen garrantzia*-n parte hartu ostean, bakarlari gisa agertu zaigu oraingoan Esther Uria.

Urak dakarrena... glu-glu, glu-glu izenburu bitxipean zer dagoen esatea ez da erraza, denetarik eta ezer ez aurkitu dezakegulako aldi berean. Taula gainean, lau elementu eskematisiko ikusten ditugu: arropa eskitoki sinple bat, aulki altu bat eta kaxoi moduko pare bat, bata bestea baino altuagoa dena.

Biluztasun horretan murgiltzen da Esther, emakume arrunt baten bizipenak gure aurrean biluzteko. Edo gurekin konpartitzeko agian, ikusleok garelako hasiera-hasieratik bere bakarrikzketaren parte. Izan ere, antzezleak denbora osoan mantentzen du nolabaiteko elkarriketa publikoarekin, konplizitate keinu ugariz hornituz bere esaldiak eta galdera zuzenak eginez besaulki-patiora, gugandik erantzunik espero ez izanagatik.

Erritmo biziko emanaldian testua da makalena

Emanaldia erritmo bizian gartzen da, eta euskara aldetik primeran funtzionatzen du, nahiz eta aukera honetan Ritxi Lizartzak apur bat abusatu duen erdarazko esamolde jatorren erabilerekin. Bestetik, nabarmentzekoa da asko zaindu direla xehetasun batzuk, hala nola hitzak keinu esanguratsuekin egoki lotzea, soinu-efektu lagungarriak eta argien maieua.

Testua bera dugu lan honetako alderik makalena. Nik uste dut bakarrikzketak batek ez duela berez ezertan ere sakondu behar, batez ere bizitzaren alde normalez ari bagara. Baina bizitzaren alde normalez hitz egiteko baditugu tabernak, mendia, lagunak eta ezagunak.

Nik behintzat zertxobait gehiago eskatzen diot antzerki testu bati, eta ez bakarrik ondo pasatzeko tarte bat eskaintzea. Bestela, antzezpene amaitutakoan, ondo pasatu dugula ezin uka, baina bitxikeria bilduma arrunt bat entzun izanaren sentsazioarekin geratzen gara, besterik ez.

LABURAREN

ARKITEKTURA

Igandean bukatuko da Frank Gehryren ibilbideari eskainitako erakusketa Guggenheim museoan

EGUNKARIA
Frank Gehry.

Bilboko Guggenheim museoan dagoen *Frank Gehry*, arkitektoa erakusketa domekara arte bisitatu ahal izango da. Atzera begirako erakusketa horretan Bilboko pinakoteka bera diseinatu zuen arkitektoaren 40 lan esanguratsuenetarikoak jarri dituzte. Hala nola, etxe eta altzarientzako diseinuak eta eraikin publikoetarako proiekturik berrienak. Horrela, artista estatubatuarra «arkitekturen eta diseinuaren egindako aparteko ekarpena aditzera eman» gura du, Bilboko museoak. Horretarako, euskarri ezberdinez osatu dute erakusketa: marrazkiak, argazkiak, bideoak eta maketak, alegia.

ZINEMA

Zuzeneko musikarekin lagundutako film mutua emango dute bihar Miramongo zikloan

Donostiako *Miramongo* Eguerdia zikloaren barruan, *Fruvolinas* film mutua eskainiko dute bihar. Emanaldia zuzeneko musikarekin biribilduko dute Javier Perez Azpeitiak zuzendutako musikari eta abeslariak. *Fruvolinas* 1926ko filma da eta garaiko errebista genero musikaz dagoen filmazio bakarra da. Saioa goizeko 11etan hasiko da.

ZINEA

Bost film luze eta hamalau labor lehiatuko dira Errealizadore berrien Gasteizko zinemaldian

Maiatzaren 7tik 11ra bitartean egingo da Errealizadore berrien Gasteizko zinemaldia. Sekzio ofizialean, bost film luze lehiatuko dira Victoria saria eskuratzeko. Film laburren atalean, berriz, hamalau izango dira bi saiotan eskainiko eta lehiatuko diren lanak. Horrez gain, lau ziklo berezi emango dituzte: euskarazkoa, gaztetxoenei zuzendutakoa; omenezko zikloa, Sancho Gracia aktore espainiarra protagonista izango duena; jatorrizko bertsioen zikloa, Billy Wilder zinemagilearen hiru filmek osatuko dutena; eta, ekialdeko, beldurrezko eta gore zinemako zikloa. Inaugurazio ekitaldian Jordi Molla aktoreak zuzendutako *No somos nadie* emango dute.

MUSIKA

Bihar jarriko dituzte salgai El barbero de Sevilla opera ikusteko sarrerak Kursaal

Kursaal fundazioak bihar jarriko ditu eskuragai maiatzaren 18an Donostiako Kursaal auditorioan *El barbero de Sevilla* ganbera opera ikusteko sarrerak. Muntai Varsoviako Ganbera Operak eta Sinfonietta orkestrak eskainiko dute. Emanaldia arratsaldeko 19:00etan hasiko da eta Anjel Alkain aktore ezagunak aurkeztuko du.

BERTSOLARITZA. Gasteizen izango da finala

Asier Otamendi nagusitu zen Aramaio lehen finalaurrean

Bihar izango da bigarren finalaurrea Araiako Andra Mari aretoan 19:00etan

Erredakzioa | DONOSTIA

Martxoaren 9an eman zitzaion Laudion Arabako Bertsolari Txapelketari hasiera eta ordutik ari da urratsez urrats lehen emanaldiak egiten; aurreneko bi kanporaketak jokatu eta gero, iragan zapatuan, apirilaren 13an egin zen lehen finalaurrekoa. Aramaion jokatu zen finalaurrekoa eta bertan Asier Otamendi nagusitu zen, gaitz nontzeko bost bertsolariei alde polita ateratzen zuelarik.

Otamendiren atzetik geratu ziren bost bertsolariek ere maila ona erakutsi zuten eta Aramaion bildu ziren ia 130 lagun aurrean saio izugarri bizi eskaini zuten.

Bigarren sailkatu zen Rikardo Gonzalez de Duranaren saioa aipagarria izan zen; egin zuen lan bikainari esker finalean izateko aukera izango baitu, iazko ekitaldian ez bezala.

Taula gainean aritu ziren gaitz nontzeko lau bertsolariek ere puntuazio altua lortu zuten. Hurrengo finalerdia jokatu duten sei bertsolariek fin aritu behar dute beraz finalerako txartela eskuratu nahi badute.

Bihar bigarren finalaurrekoa

Araiako Andra Mari aretoan 19:00etan hasiko da bihar Arabako bertsolari txapelketako bigarren finalaurrekoa, bertan

OINA
Asier Otamendi

LEHEN FINALAURREKOA

BERTSOLARIA	PUNTUAZIOA
Asier Otamendi	217,5
Rikardo Gonzalez de Durana	202,5
Manex Agirre	198,5
Ruben Sanchez	196
Zigor Enbeita	194,5
Andere Arriolabengoa	164

beste sei bertsolari lehiatuko dira: Oihane Perea, Iñaki Viñaspre, Alberto Martinez, Juan Mari Juaristi, Beito Martinez, Olatz Perea eta Irati Anda.

Bi finalaurrekoetan punturik gehien lortzen dituzten 6 bertsolariek jokatu dute finala maiatzaren 11n Gasteizko Printzipal Antzokian, 19:00etan.

IRAGARKI MERKEAK

943 300 222

33 x 33 mm
MODULO
(Araba-Nafarroa)

Eguna: 14 €
Astea (6 egun): 12 €
2 aste (12 egun): 10 €
Hilabetea (24 egun): 8 €

33 x 33 mm
MODULO
(Iparralde)

Eguna: 14 €
Astea (6 egun): 12 €
2 aste (12 egun): 10 €
Hilabetea (24 egun): 8 €

OÑATIN
PELUKERA
BAT
BEHAR DA

Tel.: 607 81 52 74

33 x 33 mm
MODULO
(Edizio orokorra)

Eguna: 19 €
Astea (6 egun): 15 €
2 aste (12 egun): 13 €
Hilabetea (24 egun): 9 €

OSTIELA! ALDIZKARIAREN
25. ALEA KLEAN!

*Piztu nazazu Jauna! Ertziaren R-a: bere alderdiak eta alderdikeriak nagusi kultur hiru-hilabetekari erdi-monografikoan. Franco-garaiko Zaldibiako Don Modesto apaiz fatxaren sermoiak plazara. Paddy REKALDE antikerikala eta 80.-etako prozesio ateak. Edorta JIMENEZ "Biblia bertsotan", e.a. *Gora Euskadi! komentu gabe!*

*Bi elkarriketa: Hebe de Bonafini, Maiatzeko Plazako Amari eta Artemio Zarco idazle eta abokatuari. Platonetik Manu Chaoraino: ze doinutara dantzatzen da Globalizazioa? Eratzunen Jauna, liburitik filmara. E. A. Poeren Printzipio Poetikoa lehenbizikoz euskaraz, e.a. *Otoitz gure alde! Eros, Irakur, Zabaltzazu eta Eman aldizkari (gogortxu, baina ez porno) hau.*

Merke-merke, 3 eurotan salgai E.H. osoko liburutegia eta kioskoetan. Urteko harpidetza (4 ale) 12 euro (ale "atzeratuak" erdi-prezioan). Esku ezazu Ordiziako 131 p.k.-ra edo deitu (edo idatzi) 943-161835 tfno./faxera. ostiela@autovia.com www.ostiela.com